



**UDALBILTZA®: ADIERAZPEN INSTITUZIONALAK**

**2005**

## **ERABAKI POLITIKOEN ERANTZUNKIZUNA**

EAJ eta EAK osatzen dugun UDALBILTZAK bultzatzen duen UDALBIDE Elkarlan Elkartearen Zuzendaritza Batzordeko kideok ohiko bilkuran elkartu eta Gasteizko Legebiltzarrean dirulaguntzen inguru hartu den erabakiari buruzko hausnarketa burutu dugu. Gauzak horrela, zera adierazi nahi dugu:

EAJ eta EAK osatzen dugun UDALBILTZAK bultzatzen duen UDALBIDE Elkarlan Elkartea lehenik eta behin argi utzi nahi du Euskal Herriaren eraikuntza nazionalaren alde buru belarri lanean ari den kohesio fondoa dela. Euskara, euskal kultura eta euskal identitatearen sustatzea eta indartzea da bere jardunen ardatz; hori eta ez beste ezer. Beti horri fidel, behin ere ez du kontutan hartu laguntza eske bertara hurbildu denaren afiliazioa edo kolorea zein den. Hau da, interes partidistetatik harantzago doan xedea du: Europari begira dagoen Euskal Herri honen biztanle guzti guztien eskubideak bermatzea, duintasun osoz.

Gauzak horrela, UDALBIDE Elkarlan Elkartearen aburuz, gisa honetako dirulaguntza onartzeak partiduen gatazkaren gainetik egon beharko luke. EHAK eta Aralar alderdien ardura falta nabarmendu nahi dugu hortaz, izan ere, euren erabakia eta jokabidearen ondorio zuzena baita UDALBIDEri esleitutako dirulaguntza heren batean murriztu izana. Horrek, nahitaez eragina izanen du elkarte honek eginen duen lanean. Hala eta guztiz ere, eta UDALBIDEren Zuzendaritza Batzordeak erabaki bezala, ahalegina eginen da bestelako diru iturriak bilatzearren, proiektu guztiak ez bada ere, gehientsuenak edo behintzat bai esanguratsuenak sustatzearren.

Norberak dagokion erantzukizuna onartu beharko du. Guk gurea zein den argi daukagu, eraikuntza nazionalen dugun erantzukizuna argi daukagu, eta ahalik eta modu arduratsuenean jarraituko dugu lanean, muga guztien gainetik.

**ZORIONAK IBARRETXE JAUNARI**

UDALBILTZA®k, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako eta Iparraldeko udal hautetsien biltzarrak bere poza adierazi nahi du Juan José Ibarretxe behin berriz Lehendakari izendatu delako. Zorionak opa dizkiegu eta gure gogorik hoberena agertu nahi diogu Eusko Jaurlaritzako buru eginen duen bere hirugarren agintaldian.

Udal hautetsi honen biltzarrak azpimarratu nahi du Lehendakari abertzale baten izendapenak duen garrantzia, Eusko Jaurlaritza baita, Diputazioekin eta Udalekin batean, gure erakundeak, gure hizkuntza eta euskal kultura berreskuratzeko eta bultzatzeko prozesuen sustatzaile nagusia eta kanpoan bizi diren euskaldunendako erreferentzia.

UDALBILTZA®k, orobat, bere sostengua eta atxikimendua agertu nahi dizkie euskal gizartea bateratzeko eta normalizatzeko egin dituen proposamenei, eta bere laguntza eta lana eskaini gogo dio, udal eremutik, lan zail bezain beharrezko honetarako.

Julian Eizmendi  
Udal Hautetsien Biltzarraren  
Lehendakaria  
UDALBILTZA®

Jesús M<sup>a</sup> Agirrezabala  
Udal Hautetsien Biltzarraren  
Lehendakari ordea  
UDALBILTZA®